

DIRU-ITURRIAK

Gure enpresaren diru iturriak, produktua saltzerakoan eta bezeroek hari lotutako beste edozein inbertsioaren (zapora bereziak, premium, promozioak...) bitartez irabazitako kapital guztiaren batura izango litzateke.

Alde batetik, 128,69 €an ateratzen zaigu makina enpresan bertan produzitzea, baina %50eko etekina atera nahiko genukeenez, 257,38 €an salduko genuke hasiera batean. Prezio finko bat izango litzateke, baina merkatua aztertu ondoren eta enpresaren gora-beherak ikusi ondoren, prezio estratejikoena eta guretzat ondoen etortzen zaiguna jarriko genuke, hala ere, eskaria eta eskaintza kontuan hartuta, prezioak gorantz edo beherantz joko luke. Eta hau izango litzateke gure diru-sarreraren gehiengoa eta portzentairik altuena.

Beste aldetik, enpresa desberdinekin kolaborazioak egingo genituzke, "pack" bat erosi ezker, jatetxe edo janari denda konkretu batean deskontuak lortu ahal izatea izango liteke adibide bat. Edo km0 eta bertako produktuak saltzen dituzten dendekin edo gertuko baserri edo enpresa txikiekin elkartu eta promozioak egiteko ideia daukagu.

Horrez gain, produktua erosterakoan, zapora minimo batzuk daude gehituta hasiera batetik, baina zapora berriak eta eskusiboagoak nahi dituztenentzat, "pack"-ak erosteko aukera izango lukete, baita hilabeteko kuota batengatik eduki eskusiboa edo "premium" izatekoa ere, hau da, momentura arte ateratako zapora guztiak eskuratzeko ahalmena izatea.

Premium izateak, beste abantaila batzuk ere baditu, "pack" bat erosterakoan deskonturen bat izatea edo promozio eta kolaborazio bereziak izatea. Adibidez, denbora konkretu batez (astebetez), Arroka Berriko degustazio menuko zaporaak probatzeko aukera izatea, horrela, jatetxeari publizitatea egiten diogun bitartean, gure marka fidelizatzen laguntzen digute. Edo Eroski supermerkatuan, "bio" sekzioan deskonturen bat izatea, baita zozketetan parte hartzeko aukera ere.

Makinaren salmentekin eta beste gehigarri guztien salmentekin osatuko genuke enpresaren diru-iturri guztiak. Gastuei begiratu ezker, kostu finkoak eta aldakorrak batuta, ematen duen zifra baino diru-sarrera handiagoak izatea espero dugu, horregatik, lehenago aipatu dugun moduan, %50eko irabazia ateratzeko ideia daukagu eta horretarako prezioa altuagoa izango litzateke guri produzitzea kostatzen zaiguna baino.